

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Solana kontseilariak zaurgarritasunak eragindako eskola segregazioa prebenitzeko jardunaldi batean parte hartuko du Valladoliden

Gaztela eta Leongo Hezkuntza kontseilariak gonbidatu du María Solana Arana hainbat erkidegotako kontseilariekin batera mahai-inguru batean parte hartzeko

Osteguna, 2018.eko abenduak 13

Gaztela eta Leonek antolatuta jardunaldi bat egingo da bihar ostirala, abenduak 14, gizarte- eta hezkuntza-zaurgarritasunak eragindako eskola segregazioa errotik kentzeari eta prebenitzeari buruz. Ekitaldia irekiko du Gaztela eta Leongo Hezkuntza kontseilari Fernando Rey Martínezek, Parlamentuko lehendakari Silvia Clemente Muncio eta Sekretariado Gitano Fundazioko zuzendari Isidro Rodríguez Hernándezekin batera.

María Solana Arana kontseilariak Valladolidera bidaiatuko du gizatalde baztertuenei buruzko elkarrizketa batean parte hartzeko, hain zuzen ere, hezkuntzara heltzeko arazo gehien duten pertsonen buruz. Zehazki, kontseilariak azpimarratuko ditu Aniztasunari Erantzuteko Planak ekarri duen aurrerapausoa eta hezkuntza beharrei zuzen erantzutearen garrantzia, hau da, gehiago behar dutenei gehiago ematea.

Irekieraren ostean, Europako Kontseiluko Arrazakeria eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordean Espainiako ordezkari den Sara Giménez Giménezek hitzaldi bat emango du hezkuntza beharrei buruz.

Ondoren, 11:45ean, mahai-ingurua egingo da ikasleen sarbideari, biziraupenari eta eskola arrakastari buruz. Solana kontseilariarekin batera, parte hartuko dute Gaztela-Mantxako Hezkuntza, Kultura eta Kirol kontseilari Ángel Felpeto Enríquezek, Galiziako Hezkuntza kontseilari Carmen Pomar Tojok, eta Murtziako Hezkuntza, Gazteria eta Kirol kontseilari Adela Martínez Cachák.

Solanak, era berean, PROEDUCAR-HEZIGARRI orientazio eta laguntza programa emango du ezagutzera. Bere funtsezko helburua da ikasle guztiak beharrezkoak diren gaitasun guztiak eskuratzea eskola porrota eta eskola uztea ekiditeko. Irakasleei zuzenduriko zenbait prestakuntza ekintza proposatzen ditu, bai eta ikastetxeen antolakuntzaren eta metodologiaren eraldaketa ere. Ministerioaren eta Europako Gizarte Funtzaren bermea jaso berri du. Gainera, inklusioaren alde Nafarroan abian jarritako beste lan ildo batzuen berri emango du, hala nola, eskola sustatzailearen irudia, irakasleriaren parte-hartzea, orientazio gida berria eta lankidetzaren sareak.